# I. ERANSKINA

## NOLA ATERA ORDEZKAGIRIAK, PARTE-HARTZEKO ESKABIDEA BETE ONDOREN

**Eskabidea betetzerakoan**, “**Onartzeko eskabidea**” atalean, ondorengo 3 agiriak lortuko dituzu:

- **Erakunde laguntzailearentzako alea**: esleitutako erreferentzia-zenbakia eta banku-entitate batean tasa ordaintzeko datuak izango dituzu. Ordainketa on-line egiten baduzu, ordezkagiri hau ez da beharrezkoa.

- **Interesatuarentzako alea** (ordezkagiria).

- **Administraziorako alea**: eskaerak betetzeko epean aurkeztu beharreko dokumentazioari atxikituko diozu, bakar-bakarrik deialdiaren 3.3.1 oinarrian adierazitako 3 kasuren batean bazaude.

**Eskabidea bete ondoren eta itxi baduzu,** ordezkagiriak inprimatzeko, ondorengo pausuak jarraitu:

1.- Sartu http://www.irakasle.eus –en

2.- Sartu “Erabiltzailea” eta “Pasahitza”



3.- Irekiko den pantailan, eskumaldean, “**Administrazio-Izapideak”** atalean sakatu: “**EPE 2019. Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO”**




4.- Hurrengo pantailan, sakatu “**NORBERARI EGOKITUTAKO KONTSULTAK”**




5.- Agertuko den pantailan, sakatu zure **eskaera-zenbakian**, “**Eskabide zbk.**“ atalaren behean agertzen dena. Bete dituzun eskaera adina eskabide-zenbaki agertuko dira.



6.- Ondorengo pantailan:

-> “**Gordekin**”-ean sakatu ondorengoa lortzeko:
- “Interesatuarentzako alea”
- “Erakunde laguntzailearentzako alea”

-> “**Dokumentazioa**”-n sakatuz, ondorengoa lortzeko:
- “Administraziorako alea”

